

## 1. BALIO PROPOSAMENA

Guk sortutako proiektua adin eta behar ezberdinetako haur, gazte zein helduentzako zuzenduta dago.

Bezeroek, hainbat beharra eta kezka izan dezakete, alde batetik, kezkak izango ditugu, hala nola, haurra denboraldi batez etxetik kanpo egoteak sortu dezaken kezka dago, burutuko ditugun jardueren segurtasun falta, haurrak izan ahal dituen beharrak asetuta izango dituen. Bestetik, bezeroek izango dituzten beharrak aipatuko ditugu, guk asetuko ditugunak:

- Haurrek kirolen ezagutza orokor bat jakitea eta jarduera fisikoak burutzea.
- Bakoitzaren autonomia pertsonala biltzen den espazio bat eskaintzea.
- Komunikazioa eta bizikidetasuna sustatzea.
- Parte-hartzaile guztien segurtasuna bermatzea.
- Jokoaren eta jardueren bitartez aisialdi burutzea.
- Parte-hartzaileen arteko harremanak sustatzea.
- Lankidetzatza eta lehiaren aurreko talde-lana sustatzea
- Higiene, segurtasuna eta osasunean hezteak
- Bakoitzaren sormen potentziala bultzatzea
- Norberaren gaitasun eta ahuleziez ohartzea eta horiek ezagutzea.
- Ingurumena errespetatzea eta toki berri hau gurea sentitzea.
- Euskara sustatu eta bultzatzea.
- Jende berria ezagutzea (gazteak euren artean eta gazte-begiraleen artean) eta kanpamendua osatzen dugun partaideen artean giro egokia sustatu eta sendotzea.
- Parte-hartzaileen arteko harremanak sustatzea.
- Hezkuntza bateratua sustatzea.
- Parte-hartzaileen arteko desberdintasun soziokulturala gutxitu edo saihesten saiatzea. (Modu inklusibo integratzaile... batean.)
- Haurraren normalizazio fisiko eta psikikoa garatzea, integrazioa bultzatuz.

**Arriskuen kontrol handia** egongo da, gure materialak izan dezakeen kalitatetik hoberena izango dute. Instalazio guztiak berrituak egongo dira, horrek esan nahi du segurtasun handiagoa izango dutela.

**Lana erraztuko** dugu, horretarako adibidez, ekintzen instalazioetara iristeko, baliabideak jarriko ditugu.

**Balio kualitatiboa** nabarmentzen dela esan daiteke, balio kuantitatiboari ere garrantzia emango diogu, hauen adina, taldearen pertsona kopurua etb.. kontuan hartuko baititugu. (taldeko eskaintzak, familia ugariak, ezgaitasuna...)

Kirolarekin erlazionatuta, eskainiko ditugun ekintzak, 2 multzotan banatuko ditugu. **Uretakoak:** raftin, piraguismo, harroil jaitsiera, rapela... **Lehorrekoak:** via ferrata, parkean ekintza ezberdinak, senderismoa, vivak, tirolinak, rokodromoa, arku tiroa... Hauek guztiak martxan jartzeko hainbat material mota desberdin erabiliko ditugu, behar bereziko haurrentzat gehienbat, material berezia beharrezkoa da.

Aurretik aipatutako ezaugarri guztiak, beste enpresa batzuetatik bereizten gaituztela pentsatzen dugu.